

Xipri Arbelkide

APAIZA ETA IDAZLEA

Hankaz gora

Leizean barna goaz. Frantzian berean, 3.000 langabe gehiago bada egunean. Niretzat ulertezina: nolaz lantegi batetan lanik ez delarik denentzat, langileen erdiak kanporatzen diren, beste erdiek soldata osoa izan dezaten? Neure zozoan usteko nuen gelditzen den lana denen artean banatua izanen zela, denek soldata bat izateko. Ez naiz mundu modernokoa ez eta postmodernokoa!

Gero eta gehiago krisian sartzen ari beraz. Zerk ekarri duen krisia? Euria bezala zerutik jautsi ote litzaiguke? Gauza segurra: ez da hobendunik. Bat ez dut entzun aitortzen, ez politika, ez ekonomia munduan: “Ikusi eta nora eraman dudan lur hau, ez naiz gai kargu honetan segitze-ko”. Nehor ez da gaztigatua izan, salbu zuek eta, mundu osoa kakan sartu duelakoz. Gure geroa eskutan zeukatenak beti boterean daude. Munduaren “gidatzen” (?) segitzen dute. Nora? Berek balekitek! Gauza kuriosa, harrigarria! Eraman gaituzten kinka tzarrera eramanez eta, haiei konfidantza egitera bortxatuak gara, sartu gaituzten leizetik ateratzeko?

Ez direla denak hobendun? Ezin uka. Edo ez dira ohartu zeramaten politikak leizera eramaten gintuela. Beraz ez dira gai munduaren kudeatzeko.



DANI BLANCO

Edo jakinean ziren eta ez dute ezer egin. Auzitegietara jauki behar litezke eta bizitzarako kartzelan sartu. Bakarrenak kartzelan daude gutxiagorentzat! Baina beren karguan daude beti eta ezer gertatu ez balitz bezala bide beretan segitzen dute. Hala nola gure lurra hiltzorian ematen duten beribilek. Hauen industria kolokan izanez, iduri luke paradaz baliatu behar luketela beribilek gabeko munduari buruz bihurgunea hartzeko. Baina mila milioika sartzen dute dirua, industria sail honi bizi berri bat emateko, gure airea gero eta gehiago kutsatuz.

Jendetasun, gizotasun aldetik ez gabiltza hobeki. Goiz honetan entzuten nuen egun oroz aipatzen diguten Mexikoko gripeak “jadanik” 84 hil egin dituela. Egundorik ikaran gauzkate pandemia horren berriekin. Baina inork ez digu inoiz erraten, urte oroz hiru milioi afrikar hiltzen dituela malariak. Musikan, bi beltz behar dira zuri bat egiteko. Gure arduradun argituentzat asko eta asko gehiago behar da, gizon zuri bakar baten egiteko.

Bota garapena, bota kontsumismoa. Batzuentzat. Eta leher egin dezagun. Denek. Mundua zangoz gora daukate. Jakinean. Bai, Requiem kantatu beharko dugu nire azken liburuak dioen bezala. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Jon Anza. *Naparra, Pertur eta Popo*. Gezurra badirudi ere, oraindik hemen desagertu daiteke, desa-

gerrarazi dezakete pertsona bat deus berezirik gertatu gabe. Ez dira gutxi bere inguruaz asperturik edo, bere kabuz alde egin izan dutenak, eta nahiz eta senideak eta lagunak argira ekarri haren falta, nekez itzultzen direnak. Jon Anzaren desagertzearen dauden zirkunstantziak, berez, berezia egiten dute asuntza. ETak bere militantetzat hartu du publikoki, poliziak berak lokalizatu zeukala esan du, dirua soinean hitzordu batera ziholala aitortuz. Horrek guztiak egiten du Jonen desagertzea

Arrastorik ez

berezia. Bere inguru hurbilenetatik at, berriak ez du oihartzunik izan. Egunero gabiltzan leketan ez dugu komentario xumea ere entzun,

eta gaia atera dugularik, *auskalotzea* izan da ia beti sortu dugun erreakzioa. Adierazpen ia kontestatarioarena bilakatzen ari zaigun futbol zelaietan ere, ez dugu aipamenik ikusi hain builosoak diren peñen aldetik. Hedabide azkarrenek, beren isiltasunaz Jonen desagertzearen gainean desagerrarazte are mingarriagoa eragin dute, isolatze sozial zekenenari bide emanez. Aurki, inguru pribatuetan ere ezingo dugu Jonena aldarrikatu, era guztietako poliziak eragotziko digu. Denbora lekuko. ■